

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ORDIZIAKO UDALA*Iragarkia*

Udaletxeko Osoko bilkurak, 2026ko otsailaren 26an egindako bileran, ekitaldirako Aurrekontu Orokorren hasierako onarpena eman dio. Aurrekontua honela dago osatua: Udalaren aurrekontua, Majori Kiroldetia SL-rena, Ordizia Lantzen SA-rena eta Aurrekontu Bateratua. Baita Aurrekontua gauzatzeko udal arauaren aldaketa eta ekitaldiari dagokion Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda ere.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15 artikuluan xedatutakoa betez, Aurrekontua jendaurrean jartzen da, ondorengo arau hauen arabera:

- a) *Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza.
- b) *Dokumentazioa aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesdunek.
- d) *Inpugnatzeko arrazoiak:* 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko lekua:* Ordiziako Udaleko Erregistro Orokorrean, bulego orduetan edo telematikoki Ordiziako Udalaren egoitza elektronikoan (www.ordizia.eus). Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu daiteke.

- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, 2026ko Aurrekontu Orokorra, Aurrekontua gauzatzeko udal araua eta dagokion Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartuzat joko dira behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Ordizia, 2026ko otsailaren 27a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea. (1413)

AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 26 de febrero del 2026, ha aprobado inicialmente el Presupuesto General para el ejercicio, integrado por el Presupuesto propio del Ayuntamiento, Majori Kiroldetia S.L., Ordizia Lantzen S.A. y el Presupuesto Consolidado. Así como la modificación de la Norma de ejecución presupuestaria y la correspondiente Plantilla Orgánica y Relación de Puestos de Trabajo.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 15 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, se expone a información pública conforme a las siguientes reglas:

- a) *Lugar donde se encuentra:* Secretaría.
- b) *Plazo para examinarlo y en su caso para presentar reclamaciones:* Quince días hábiles contados a partir del día hábil siguiente al de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.
- c) *Quiénes pueden interponer reclamaciones:* Los interesados que se relacionan el artículo 17.1 de la Norma Foral 21/2003.
- d) *Motivos de impugnación:* Los señalados en el artículo 17.2 de la Norma Foral 21/2003, e infracción del ordenamiento jurídico.

e) *Lugar de presentación:* Registro General del Ayuntamiento de Ordizia, en horario de oficina o telemáticamente en la sede electrónica del Ayuntamiento (www.ordizia.eus). Asimismo, también podrá presentarse en los lugares a que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

- f) *Órgano ante el que se reclama:* El Ayuntamiento Pleno.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, el Presupuesto General de 2026, junto con la Norma de ejecución presupuestaria, la Plantilla Orgánica y la Relación de Puestos de Trabajo, quedarán definitivamente aprobados, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Ordizia, a 27 de febrero de 2026.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre. (1413)